

**Oharra:**

Honako dokumentu hau Eusko Jaurlaritzak itzuli du euskarara eta Europako Batzordeak, beraz, ez du horretan erantzukizunik.

**Nota:**

La traducción de este documento al euskera ha sido realizada por el Gobierno Vasco y no compromete la responsabilidad de la Comisión Europea.

## **ESPAINIAKO ERRESUMAREN ETA EUROPAKO BATZORDEAREN ARTEKO ADMINISTRAZIO-AKORDIOAREN PROIEKTUA**

Batetik Espainiako Erresuma, eta bestetik Europako Batzordea daudela,

Ikusirik 2005eko ekainaren 13an izandako bileran Europako Batasunaren “Gai orokorren eta Kanpo Harremanen” arloko Kontseiluak onartutako ondorioak, hain zuzen ere Europako Kontseiluan eta Europako Batasuneko beste erakunde eta organo batzuetan ofizialki beste hizkuntza batzuk erabiltzeko,

Kontuan izanda ondorengook:

- (1) Ahaleginak egin behar direla Batasuna herritarrengana hurbiltzeko, eta horrek aukera eman behar duela herritarrok eta berauen ordezkariak, ahal den neurrian behintzat, erakundeekin haien ama-hizkuntzan komunikatzeko modua izateko, garrantzizkoa baita hori Batasunaren proiektu politikoarekin identifikatuta senti daitezen.
- (2) Batasunaren baitan badirela Kontseiluaren 1/1958 erregelamenduan aipatzen diren hizkuntzez gainera, estatu jakin baten barruan estatus jakin bat aitortzen zaien beste hizkuntza batzuk ere, dela estatu osoan edo estatuaren lurralde jakin batean, edo hizkuntz nazionalak diren neurrian, erabiltzeko legezko baimena dutenak.

Jarraian datorren ADMINISTRAZIO-AKORDIOA hitzartzea erabaki dute, Europako Batasunean gaztelania ez beste hizkuntza batzuk ere ofizialki erabili ahal izateko, baldin eta hizkuntzoi estatus jakin bat aitortzen baldin bazaie Espainiako 1978. urteko Konstituzioan.

### **Lehenengo klausula**

Espainiako herritarrek, edo edozein pertsona fisiko edo juridikok, baldin eta Espainian bizi edo egoitza bertan baldin badu, aukera izango dute, Espainiako zuzenbidean eta Kontseiluaren 2005eko ekainaren 13ko ondorioetan esaten denaz bat, Europako Batzordeari bidalitako idatzizko komunikazioak Espainiako Konstituzioaren arabera Espainian ofizialak diren hizkuntzetakoren batean igortzeko.

**1.1.-** Baliatutako hizkuntza ez baldin bada gaztelania, aipatutako aukera hori ondorengo prozedura jarraituz eramango da aurrera:

- Herritarrak idatzizko testua Espainiako zuzenbidean zehaztutako organo eskumendunera bidaliko du, eta organo horrek, gaztelaniazko egiaztatutako itzulpen eta guzti, Europako Batzordera igorriko.
- Komunikazioaren egiaztatutako itzulpena jasotzen den eguna izango da epeak zenbatzeko kontuan hartuko dena, bereziki Batzordeak herritarrari erantzun ahal izateko epe jakin bat duen kasuetan.
- Europako Batzordeak erantzuna gaztelaniaz idatzi eta lehen aipatutako erakunde eskumendunera igorriko du testua.
- Itzulpena egiteko eskumena duen organoak interesatuari Batzordeak emandako erantzuna bidaliko dio, jatorrizko agiriak zuen hizkuntzara ziurtatutako itzulpena eginda, eta hori ahalik eta epe laburrenean.
- Batzordean eskumena duten zerbitzuek jatorrizko dokumentuaren hizkuntzan erantzutea erabakitzen baldin badute, hala egin eta zuzenean interesatuari igorriko diote erantzunaren testua.

Gaztelania ez den hizkuntzetakoren batean itzulpen akatsen bat gertatuko balitz, edo emandako erantzunaren itzulpena gaizki interpretatuko balitz, horrek ez lioke erantzukizunik sortuko Batzordeari; itzulitako testuetan berariaz aipatu beharko da hori hala dela.

**1.2.-** Batzordeko zerbitzu eskumendunek beren kabuz itzulpena egiteko gaitasuna izan eta hala egitea nahi dutenean izan ezik, gainontzeko kasuetan Batzordeak igorleari bidaliko dizkio gaztelaniazko itzulpenik gabe jasotzen dituen komunikazioak, komunikaziook 1978ko Espainiako Konstituzioan ofizialtzat jotako beste hizkuntzaren batean idatzita egon baina gaztelaniazko egiaztatutako itzulpenaz batera ez baldin badatoz.

Kasu horretan, Batzordeak interesatuari jakinaraziko dio baduela Europako erakunde horretara beraren hizkuntzan jotzeko eta erantzuna hizkuntza horretan jasotzeko eskubidea, baina horretarako, kasuan kasuko hizkuntzan idatzitako komunikazioa Espainiako zuzenbideak zehaztutako organora bidali beharko duela.

**1.3.-** Komunikaziogileak epe jakin bat baldin badu Batzordearen erantzunari jarraipena emateko, 1.1. puntuan esaten denaren arabera, Batzordeak zuzenean herritar horri eta itzulpena egiteko eskumena duen organoari, biei, bidaliko die erantzuna gaztelaniaz. Erantzun horretan, Batzordeak herritarrari jakinaraziko dio erantzuteko duen epea gaztelaniazko testua jasotzen duenetik hasiko dela zenbatzen. Batzordeak bere erantzunaren kopia organo eskumendunari ere bidaliko dio, hasierako dokumentuaren hizkuntzara itzul dezan. Itzulpen horretan ere Batzordeak gogoraraziko dio epeen kontua zertan den. Batzordeak ez du inoiz ere erantzukizunik izango itzulpeneko akatsengatik; kontu hori berariaz aipatu beharko da itzulpenetan.

**1.4.-** Batzordeak epe jakin batean erantzuteko betebeharra baldin badauka, epe hori jatorrizko agiria eta agiri horren gaztelaniazko egiaztatutako itzulpena jasotzen denetik hasiko da zenbatzen. Ez da epe hori zenbatzen jarraituko Batzordeak gaztelaniaz idatzitako erantzuna bidaltzen dionean Espainiako zuzenbidearen arabera itzulpena

egiteko organo eskumenduna denari, edo Batzordeak zuzenean interesatuari bidaltzen dionean erantzuna, jatorrizko dokumentuaren hizkuntzan idatzita.

**1.5.-** Administrazio-akordio honetako alderdiek beharrezko neurriak hartuko dituzte akordioaren baitako komunikazioen isilpekotasuna zaintzeko uneoro, eta bereziki Espainiako zuzenbidearen arabera itzulpenak egiteko izendatutako organoari dagokionez.

### **Bigarren klausula**

Espainiako gobernuak bere gain hartuko ditu administrazio-akordio hau abian jartzeak dakartzan zuzeneko eta zeharkako kostuak, hain zuzen ere Europako Batzordean sortutakoak.

Batzordeko zerbitzu eskumendunek egin diren gastuak ordaintzeko eskatuko diete Espainiako agintariei urtean behin; gastuok itundutako moduan kalkulatu dira itzulitako orrialde kopuruaren arabera, betiere akordio honetan aurreikusitako moduan.

### **Azken xedapena**

Espainiako gobernuak Batzordeko Idazkaritza Nagusiari lehen klausulan aipatzen diren itzulpenak egiteko organo eskudunak Espainiako zuzenbidearen arabera zeintzuk izango diren jakinarazten dionean sartuko da indarrean akordio hau.